

DUNETAKO BIZTANLEAK

LOS HABITANTES DE LAS DUNAS

Landareak bezalaxe, dunetan oso animalia interesgarriak bizi dira; bereziak dira eta oso gaizki kontserbatu dira.

Dunetan bizitzeko hainbat estrategia erabiltzen dituzten intsektuak garatzen dira. *Philantus triangulum* noragabeko liztorra da eta tamaina bereko intsektuekin zein handiagoekin (ezti-erlea, adibidez) harrapari gisa aritzen da. *Cicindela hybrida* kakalardoa dunetako harrapari aditua da. Inurri-leoia (*Myrmeleon fornicarius*) da nabarmenena. Intsektu bitxi horrek inbutu-formako tranpak jartzen ditu hanean, inurriak behera erori eta han harrapatzeko.

Dunetan, bestalde, narrastiak ere bizi dira. Eskinko hiruhatza da nabarmenena, eta dunetako faunako bitxitzat jotzen da. Kalterik egiten ez duen narrasti horrek (ziraunaren antzekoa) bi esku txiki gordetzen ditu oraindik.

Kostaldeko dunak antzina-antzinatik izan dira hainbat hegazti-espezie kumatzeko hautatzen duten tokia. Zoritzarrez, gaur egun, hegazti espezie habiagileak ez dira EAEko hareatzetan finkatzen, hareatzak eta dunak oso txikiak direlako, eta gizakiek presio handia egiten dutelako kumaldian.

Hegazti interesgarrietako bat txirritxo txikia da. Hegazti eder horri “espezie kaltebera” kategoria eman zaio, eta dunetan habiak egin ditzakeen hegazti horietako bat da. Itsas mikak ziur aski garai batean gure kostaldeetan egin izan zituen habiak, kostaldeak lasai eta basatiagoak zirenean.

Kostaldeko dunak migratzen ari diren (udazkenean eta udaberrian) hainbat hegazti-espezie atsedean hartzeko gune garrantzitsuak ere badira.

Aipatzekoa da, neguan, Europako iparraldetik etorritako fokak detektatu direla.

Al igual que las plantas, en las dunas viven animales interesantísimos por su singularidad y por su precario estado de conservación.

En las dunas se desarrollan insectos con diferentes estrategias de supervivencia. El lobo de las abejas (*Philantus triangulum*) es una abispa errante que depreda sobre insectos de su mismo tamaño e incluso mayores como la abeja de la miel. El escarabajo tigre (*Cicindela hybrida*) es un especialista depredador de las dunas. De todos ellos destaca la hormiga león (*Myrmeleon fornicarius*). Este singular insecto construye trampas en forma de embudo sobre la arena con el fin de capturar hormigas que resbalen hasta su base donde son capturadas.

En las dunas también aparecen reptiles, entre los que destaca el Eslizón tridáctilo, auténtica joya faunística de las dunas. Este inofensivo reptil, similar al lución, aún conserva dos pequeñas manos.

Las dunas costeras han sido desde antiguo lugares de cría para algunas especies de aves. Por desgracia, hoy en día ninguno de los arenales de la C.A.P.V. alberga aves nidificantes debido a la limitada extensión de sus arenales y dunas y la presión humana ejercida sobre estos lugares en época de cría.

Una de las aves más interesantes es el chorlito chico. Esta bella ave que está catalogada como “especie vulnerable”, es una de las aves nidificantes potenciales de las dunas. El ostrero es otra ave que a buen seguro nidificó en nuestras costas, cuando éstas eran más tranquilas y salvajes.

Las dunas costeras son también importantes áreas de descanso para algunas especies de aves en los períodos de migración (otoño y primavera).

Cabe reseñar que durante el invierno se ha detectado la presencia de focas procedentes del norte de Europa.



Escarabajo tigre (*Cicindela hybrida*)



Inurri-leoia / Hormiga león (*Myrmeleon fornicarius*)



Txirritxo txikia / Chorlito chico



Limikolak atsedean hartuz / Limícolas descansando



Foka baten arrastoak / Huellas de foca